





# Lea Ibilbidea - GR 38

## oinez edo bizikletaz / a pie o en bici

Eskualde honen ospearen gailurra izan ziren XVI. eta XVIII. mendeak. Bertako burdinolen produkzioa, ontziolak eta marinel-lanbidea Europako abangoardia izan ziren. Lea ibaiaren ondoan balizatuta doan bidexka eginez historia horren zati bat ezagutzeko aukera izango duzu. Bideak herri ugari zeharkatzen ditu, eta herri horietako edozeinetan atseden hartzeko, janari-edariz hornitzeko eta bertako jatetxe batean lasai asko eseri eta jateko aukera izango duzu.

Los siglos XVI y XVIII marcaron el esplendor de esta comarca. Su producción ferrona, los astilleros y la marinería fueron vanguardia en Europa. Hoy en día es posible conocer parte de esta historia recorriendo el sendero balizado que discurre junto al río Lea. El camino, en su discurrir, transita por múltiples localidades donde poder descansar, avituallarse o sentarse a comer en un restaurante relajadamente.

lekeitioko udala
lekeitioturismo.eus
Leartibai Garapen Agentzia
cittaslow
Bizkaia foru aldundia diputación foral
EUSKADI BASQUE COUNTRY #Basquexperience

# Lea Ibilbidea

**Hainbat puntutatik abiatuz izango duzu Lea ibaiaren bidexka ezagutzeko aukera. Antolatu zure txangoa zure aukeretara eta mailara hobekien egokitzen den moduan. Aprobetxatu autobus-lineak zein eskualdeko taxi-zerbitzuak eskaintzen dizkizun erraztasunak zure ibilbidea planifikatzeko. Mugi zaitez edo itzuli zaitez zure abiapuntura garraio publikoa erabiliz.**

**Aukera ugari eskaintzen dizkizu bidexka honek, eta 3 ohikoenak aurkeztuko dizkizugu ondoren:**

Puedes descubrir el sendero del Lea partiendo desde diferentes puntos. Organiza tu excursión como mejor se adapte a tus posibilidades y nivel. Aprovecha las facilidades que ofrecen tanto la línea de autobús como el servicio de taxi de la zona para planificar tu recorrido. Desplázate o regresa a tu punto de partida usando el transporte público.

Las opciones que te ofrece este sendero son múltiples, aunque a continuación te proponemos las 3 más frecuentes:




## 1 Gizaburuaga ⟷ Lekeitio




**10** Km. 3h

**Bidexkaren funtsa dastatu nahi dutenentzako aukerarik onena dugu hau. Ibilbide ez oso luzea, ezin hobea haur txikiak dituzten familientzat edo naturaz gozatzea gustatzen zaien eta lurraldea ezagutzeko modu aktibo bat bilatzen duten taldeentzat.**

Esta es la mejor opción para aquellas personas que quieran saborear la esencia de este sendero. Un recorrido no muy largo, apropiado para familias con peques o grupos que les guste disfrutar de la naturaleza y busquen una manera más activa de conocer el territorio.



## 2 Aulesti ⟷ Lekeitio




**15** Km. 4h 30min.

**Modu ezin hobea goiza Lea Artibaiko eskualdearen barrualdea ezagutzen ematea eta arratsaldean, aldiz, beste jarduera batzuez gozatzea bilatzen dutenentzat. Basoak, ontziola zaharrak, zubiak eta ur-jauziak ditu zain bisitariak.**

Una forma ideal para aquellos que buscan disfrutar de una mañana en busca del interior de la comarca de Lea Artibai y disfrutar a la tarde de otras actividades. Bosques, antiguas ferrerías, puentes y saltos de agua es lo que le espera al visitante.



## 3 Munitibar ⟷ Lekeitio




**23** Km. 8h 20min.

**Lea ibaiaren bidexka osorik egitea ezin egokiagoa da orduak eta orduak ibiltzen ohituta daudenentzat. Esperientzia paregabea da egunaren zatirik handiena horretarako hartzea eskatuko diguna, baina oroimenean geratuko zaiguna. Gainera, 23 kilometroko bidean dauden kultura- eta ondare-baliabide guztiez gozatzea ahalbidetzen du.**

Recorrer el sendero del Lea en su totalidad es perfecto para aquellas personas que están acostumbradas a andar durante horas. Es una experiencia única que nos exigirá la mayor parte del día, pero que nos quedará en el recuerdo. Además, permite disfrutar de todos los recursos culturales y patrimoniales que existen a lo largo de los 23 kilómetros.

### Hurbil zaitez Ziortzara
### Acércate a Zenarruza

**Lea ibaiaren bidexkari jarraikiz Donejakue Bidearekin bat egin dezakezu eta Ziortzako Monasterioraino (Unescoren ondarea) hurbildu.**

Siguiendo el sendero del Lea puedes conectar con el Camino de Santiago y acercarte hasta el Monasterio de Zenarruza (Patrimonio de la Unesco).




## GR 38

### Ardoaren eta arrainaren ibilbidea
### Ruta del vino y del pescado

**Oiongo mahasti-lurretatik, Arabako Errioxan, Kantauriko euskal portuetaraino, GR 38 Ardoaren eta arrainaren bideak, Euskadi hegotik iparrera zeharkatzea ahalbidetzen du, askotarikoak bezain liluragarriak diren paisaietan barrena. Lekeitioko, Bermeoko eta Ondarroako portuetatik abiatzen ziren garai bateko mandazainak beren mandoak arrain freskoarekin edo arrain gazituarekin kargatuta, eta barrualdetik etortzen ziren gariz, gatzez, ozpinez eta ardoz beteta itzultzen ziren haien gurdiak.**

**GR 38 bidearen markak jarraituz garai bateko bide hori egiteko aukera dago gaur egun. Kontrastez betetako ibilbidea, 7 etapatan zatitua eta 166 kilometrokoa. Arabako Errioxako mahastiak, Arabako lautadako ordekak eta urtegiak, Urkiolako Natura Parkea eta Euskal Kostaldea izango dira bere bidean ibiltariak aurkituko dituen erakargarri askoren arteko batzuk.**

**Lea Ibilbidea doan bide beretik egiten da GR 38 bidearen etapa, Lekeitiorantz hartzen duen saihesbidean.**

Desde las tierras del viñedo en Oyón-Oion, en Rioja Alavesa, hasta los puertos vascos del Cantábrico, el GR 38 permite atravesar Euskadi de sur a norte, surcando paisajes tan diversos como cautivadores. De los puertos de Lekeitio, Bermeo y Ondarroa partían los antiguos arrieros con sus mulas cargadas de pescado fresco o en salazón, y en su viaje de vuelta del interior cargaban sus carruajes de trigo, sal, vinagre y vino.

Hoy en día existe la posibilidad de realizar ese antiguo camino siguiendo las marcas del GR 38, Ruta del vino y del pescado. Un recorrido lleno de contrastes, dividido en 7 etapas y 166 kilómetros. Los viñedos de Rioja Alavesa, las llanuras y embalses de Llanada alavesa, el Parque Natural de Urkiola y la Costa Vasca son algunos de los muchos atractivos que el senderista encontrará en su caminar.

La etapa del GR 38, en su variante hacia Lekeitio, se realiza por el mismo camino por el que transita el Lea Ibilbidea.

**166** Km. **7** Etapak/Etapas

**ETAPAK** / ETAPAS

| | |
|---|---|
| **1.** Oyón-Oion → Laguardia | 19 km |
| **2.** Laguardia → Albaina | 22 km |
| **3.** Albaina → Estíbaliz | 23 km |
| **4.** Estíbaliz → Otxandio | 37,5 km |
| **5.** Otxandio → Durango | 19,5 km |
| **6.** Durango → Gernika-Lumo | 25,9 km |
| **7.** Gernika-Lumo → Bermeo | 19,3 km |

**ALDAERA** / VARIANTE

Maskagakorta → Lekeitio GR 38.3 (Lea Ibilbidea) **34** km

## Ez utzi bisitatu gabe... / No dejes de visitar...

1. **Zubietako jauregia**
   Palacio de Zubieta
2. **Marierrota marea-errota, Interpretazio Zentroa**
   Molino de Mareas Marierrota, Centro de Interpretación
3. **Ospitale zaharraren aurriak**
   Ruinas del antiguo hospital
4. **Lariz Oleta errota**
   Molino Lariz Oleta
5. **Bengoleako burdinolaren multzoa**
   Conjunto de la Ferrería de Bengolea
6. **Ziortzako Monasterioa**
   Monasterio de Zenarruza

## Garraioa / Transporte

**BUS**
LINEA (A3523)

**TAXI**
LEKEITIO

